



Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaldiaren XXII. Astea Hizkuntza erabileraren neurketa

1. SARRERA.....	2
2. METODOLOGIA	3
3. AHOZKO ERABILERA.....	4
3.1. Filmak.....	4
3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak.....	5
3.3. Ekitaldi nagusiak	5
3.4. Aurkezpen prentsaurrekoak	6
3.5. Prentsaurrekoak	6
3.6. Jendaurreko zerbitzuak	7
4. IDATZIZKO MATERIALA	8
4.1. Liburuak.....	8
4.2. Programazio liburuxka.....	8
4.3. Programazio taula	9
4.5. Eskuorriak, sarrerak, postalak,	9
4.6. WEB gunea	9
4.7. Kartelak	10
4.8. Prentsarako materiala	11
4.9. Errotulazioa	11
5. ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK	11
5.1. Antzerkiak	11
5.2. Erakusketak.....	11
6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK	13

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, Donostiako aisialdian eragina duten ekintza nagusietan hizkuntza erabileraren neurketa egin ohi du: dFeria, Giza Eskubideen zinemaldia, Aste Nagusia, Jazzaldia eta Zinemaldia. Hori dela eta, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astean azken urte hauetan bezala, aurten ere behaketa egin dugu.

Garrantzitsua da oso euskararen erabilera normalizatzea eguneroko jardunean. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskaren presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela.

Beraz, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astean antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, Beldurrezko eta Fantasiazko Zinemaren Astean euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Azkeneko urte hauetan, 2002tik, urtez urte egin du BAGERA Elkartek Zinema Astearen neurketa eta, beraz, datu guztiak aurrean izan ditugu neurketa egin eta ondorioak ateratzerakoan. Asteak bere gain hartzen dituen momentu guztiak neurtzen saiatu gara: filmen aurkezpenak, euskaraz azpiztitulua dutenak, programazio aurrerapenaren txostena, filmez filmeko gida, kartelak etab. neurtu ditugu besteak beste.

Behaketa aurrera eramateko orduan, bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da, halere, elkartetik kanpoko kolaboratzaileak ere izan ditugu behaketa aurrera eramateko orduan.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 3 atal desberdinetan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Filmak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, film emanaldietako ongi etorri eta aurkezpenak (ongi etorria, sarrerako lehen hitzak bezala eta aurkezpena pelikulen xehetasunak ematerakoan) eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da Astean. Antolakuntzaren argitalpenak (filmez filmeko gida, programazioaren aurrerapen txostena...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

c) Erakusketak: Atal honetan Astearen baitan antolatzen diren erakusketetan egiten den hizkuntza erabilera neurtzen dugu.


3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Filmak

Atal hau Zinema Astearen ekintzarik garrantzitsuena dela gogoan izan behar dugu. Aurten, asteak 37 film luze eman ditu, eta horietatik, 11k azpigitulua euskaraz izan zuten eta 1 euskaraz izan ziren (%32,43a). Bestalde, 25 labur eman dira eta horietatik 15 (lehiaketan parte hartutako film laburrak) euskaraz azpidatzita izan dira (%60a). Emanaldi kopuruei erreparaturaz, 43 film luze izan dira, 11k euskarazko azpigituluak izan dituzte eta bat euskaraz izan da; beraz, film luzeen emanaldien %27,91 euskaraz izan da. Film laburren emanaldiak 41 izan dira, horietatik 15ek euskarazko azpigitulua izan dute, hau da, %36,59ak.

Sailez-sail honakoak izan dira aurten eskainitako filmak eta euskarazko emanaldien kopurua:

- Film luzeen sail ofiziala: 23 filmetatik 5 izan ziren euskaraz azpigitulua zutenak, %21,74a. Emanaldiei dagokionez 28 emanaldietatik, 5ek euskarazko azpigitulua zuten (%17,86). Sesio Berezian 3Dtan proiektatutako pelikula bat egon zen jatorrizko hizkuntzan eta azpigituluak gazteleraz.
- Film laburren sail ofiziala: 15 filmetatik (1 lehiaketatik kanpo), 14 euskaraz azpidatzitako emanaldi izan ziren, %93,33 (lehiaketan parte hartu dutenen artean %100ek euskarazko azpigitulua izan zuten). Guztira 41 emanaldi egon ziren, %36,59a euskaraz.
- Film labur espainiarrei dagokienez, film eta emanaldien kopurua berdina izan zen. 9 emanaldietatik, bakarra ere ez euskaraz.
- Zatoz eta begiratu sailean emanaldi eta filmen kopurua ere berdina izan zen. 8 emanaldietatik, 6k euskarazko azpigitulua izan zuten (%75a).
- Haurrentzako zinema: Emanaldi bakarra egon zen eta euskaraz bikoiztua.
- Aurten ezusteko filma gazteleraz izan zen (El callejón): Gazteleraz eta ingelesez azpidatzia.
- Anime Berria sailean (B Aldea programaren barruan) 5 film japoniar izan ziren. 5 emanaldietatik bakarra ere ez euskaraz.



3.2. Ekitaldien ongi etorri eta aurkezpenak

Ongi etorri eta aurkezpenak aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu ekitaldi batzuk film bat baino gehiagoren emanaldia direla (normalean, laburren bat lehenengo eta luze bat edo gehiago ondoren), eta gehienetan ekitaldi osoak aurkezpen bat izan ohi duela eta ondoren filmeko zuzendariak hitz egiten duela.

BAGERAK behatutako filmetatik, 9k izan dute aurkezpena. 2 aurkezpenetan soilik izan dugu aukera euskarazko hitz batzuk entzuteko (pelikula baten "Teaser"-ean eta Juan de los muertos pelikularen aurkezpen laburrean). Beste hizkuntzaren bat erabili denean itzulpena gaztelerara izan da. Bestetik, Josemi Beltranek (Astearen zuzendariak), Halloween gauean Antzoki Zaharrean filmak proiektatzeko arazoaz eta leku aldaketaz jende aurrean azaldu zituenean gazteleraz soilik egin zuen.

3.3. Ekitaldi nagusiak

Inaugurazio ekitaldiaren aurkezpena Vanessa Rodriguez, telebista esatariak egin zuen. Agurra euskaraz egin bazuen ere, jarraian, aktore batek, Josemi Beltranek eta Manuela Vallesek hartu zuten hitza gazteleraz. Beraz, euskararen presentzia ongiatorrirra mugatu zen.

Itxiera ekitaldian ere, euskararen presentzia oso urria izan zen. Lehenengo Josemi Beltranek eman zion hasiera gazteleraz. Ondoren,

Vanessa Rodriguezek sariak aurkeztu zituen gazteleraz gehien, euskara esaldi bakan batzuetara mugatu zen. Sarien banaketa Alaskak eta Mario Vaquerizok banatu zituzten. Sari nagusia Juan Martinez Moreno zuzendariaren Lobos de Arga filmak irabazi zuen. Filmaren taldeko kideak gazteleraz egin zuten beraien interbentzioa Gorka Otsoa ezik. Otsoak lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz egin zuen.

3.4. Aurkezpen prentsaurrekoa

Irailaren 7an aurrerapen prentsaurrekoa izan zen Donostiako Victoria Eugenia Antzokiko Klub aretoan. Bertan, Josemi Beltranek (Zinema Astearen zuzendaria) eta Nerea Txapartegik (Euskara eta Kultura delegatua) Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea aurkeztu zuten. Prentsaurreko horretan aurtengo kartela, zenbait erakusketa eta filmen programazioaren atal bat iragarri zuten. Prentsaurreko guztia ele bietan egin zuten, Nerea Txapartegik bi hizkuntzetan informazio bera emanaz eta Josemi Beltranek hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanaz.

Urriaren 18an, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Asteko euskarazko programazioa aurkeztu zen Victoria Eugeniako prentsa-aretoan. Prentsaurrekoan Nerea Txapartegik (Euskara eta Kultura delegatua) eta Josemi Beltranek (Donostia Kulturako Zine arduraduna) hartu zuten parte. Azalpen guztiak euskaraz eman zituzten. Bukaeran Josemi Beltranek gazteleraz itzulpenik egitea nahi zuten galdetu zien kazetariei. Erantzunik jaso ez zuen arren, laburpen bat egin zuen gazteleraz.

Urriaren 20an, Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea aurkeztu zen Victoria Eugeniako foyerrean. Prentsaurrekoan Mikel Mendarte Azkue (Kutxa Fundazioaren Elkarlanen zuzendaria) eta Josemi Beltran (Donostia Kulturako Zine arduraduna) izan ziren. Zinema Asteari buruz emandako informazioa ele bietan egin zuten biek, euskara eta gaztelera tartekatuz. Hizkuntza bakoitzean informazio ezberdina emanaz (Sail Ofiziala euskaraz, Inaugurazioa gazteleraz, film luzeak gazteleraz...). Hala ere, gaztelera gehiagotan eta azalpen luzeagoak egiteko erabili zen.

3.5. Bestelako prentsaurrekoak

Atal honetan Zinema Asteko ekintzak aurkezteko egin diren prentsaurreko guztiak hartu ditugu kontuan, bai filmei buruzkoak, komiki jardunaldiei buruzkoak edota balorazioarenak ere.

Astean zehar egindako prentsaurrekoetan Zinema Astearen arduradunak eman zion hasiera prentsaurrekoari (Josemi Beltran), gehienetan nahiko labur. Filmek kasuan, euskara hasierako agurrean erabili izan da eta azalpena eta gonbidatuen aurkezpena gazteleraz egin

da. Ondoren, gonbidatuaren baitan izan da erabilitako hizkuntza, orokorrean gazteleraz egin dute, eta beste hizkuntzaren bat erabili dutenean itzulpena gaztelerara egin da. Egindako galderak beti gazteleraz izan dira eta erantzunak gazteleraz edota atzerriko hizkuntzan egin dira (itzulpena gazteleraz).

Bestetik, azaroaren 2an, *“ven y mira. el cine fantástico y de terror en la zona prohibida”* liburua eta *“Euskadi Fantastikoa VII”* erakusketa aurkeztu ziren. Bi prentsaurrekoetan euskara hasierako aurkezpen laburrean soilik erabili zen.

Azaroaren 4an, Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan XXII. Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen palmaresa irakurri zen. Euskara eta gaztelera tartekatu bazen ere, gaztelera gehiago erabili zen.

Azkenik, aurten ez da Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astearen balorazio prentsaurrekorik egin. Balantzea posta elektronikoz jaso dugu prentsa ohar baten bidez, euskaraz.

3.6. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun neurtu nahi izan dugu.

Hainbat ekitalditan aretoen sarreretan zeuden langileekin euskaraz hitz egin ahal izan dugu, askotan lehenengo hitza gazteleraz izan den arren.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har Asteko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan edota hiru eletan idatzirik dago, nahiz eta zenbait salbuespen egon.

4.1. Liburuak

3 argitalpen eskuratu ditugu:

- “Fantasiazko eta Beldurrezko Zinemaren XXII. Astea”-ren liburuan, astean zehar izango diren film eta bestelako ekintzei buruzko informazioa azaltzen da 110 orritan. Lehenik, antolatzaile, babesle eta laguntzaileen zigiluak ageri dira, nahiz eta izenburuak hiru eletan egon, Donostia Kulturaren helbidea eta datuak gazteleraz bakarrik agertzen dira. Ondoren, eskerrak emateko orrialde bat dago, honen beheko aldean Donostia Kulturaren egoitzaren helbidea eta Zinema Asteko lantaldearen fitxa teknikoa ere gazteleraz daude. 6. eta 7. Orrialdeetan, epaimahaiari buruzko informazioa dago hiru eletan. Hurrengo orrialdeetan, filmei buruzko informazioa dator hiru eletan eta izenburua jatorrizko hizkuntzan ageri da. Poztekoa da aurten lehenengo aldiz, alboan datorren fitxa teknikoa hiru hizkuntzetan ageri dela (orain arte gazteleraz soilik idatzita zegoen). Gainontzeko ekintzei buruzko informazioa ere hiru eletan dago. Informazioaz gain, hainbat iragarki edo filmen kartelak daude. Filmek 17 izan dira, haurren film-iragarkia euskara hutsez, 3 gazteleraz eta 12 ingelesez. Honetaz gain, 8 iragarkietatik ele bitan bakarra dago, gazteleraz 6 eta 1 ingelesez eta gazteleraz.
- “Ven y Mira” liburua: 414 orrialde eta liburu osoa gaztelera hutsez dago, baita, edizio datuak, aurkibideko izenburuak eta editatze datuak ere.
- “2000 maniacos” aldizkaria: 82 orrialdeko aldizkaria da eta guztia gazteleraz dago, kontrazala izan ezik; bertan Fantasiazko eta beldurrezko zinemaren asteko kartel ofiziala azaltzen da eta hiru eletan dago.

4.2. Programazio liburuxka

26 orrialdeko liburuxka bat da. Azalean kartel ofiziala du, hiru eletan eta antolatzaile, babesle eta laguntzaileen izenak ageri dira. Kontrazalean, berriz, Selecta Visión-en iragarkia gazteleraz. Barnean, film bakoitzaren azalpen labur bat dago, ele bitan, euskarak lehentasuna duelarik. Testuak bata bestearen itzulpena dira.

4.3. Beldurra ere euskaraz programazio liburuxka

Astean zehar euskaraz eskaintzen diren filmetarako 14 orriko programazio liburuxka euskara hutsez dago.

4.4. Programazio taula

Triptiko formatuan, aste osoko programazioa modu grafikoan azaltzen da. Azalean kartel ofiziala dator hiru eletan eta kontrazalean Selecta Visión-en iragarkia gazteleraz. Informazio guztia ele bitan dago.

4.5. Esku orriak, sarrerak, postalak, ...

Atal honetan Zinema Astearen inguruan sortzen den beste material idatzia biltzen dugu, kontuan izanik hau dela jende gehienarengana iristen den materiala.

- Euskarazko emanaldietarako eskuratu ditugun sarreretan izenburu asko gazteleraz azaltzen ziren nahiz eta berezko izenburuak beste hizkuntza batean izan (La posesión, holocausto caníbal, el fotógrafo del pánico, la naranja mecánica).
- Hasierako festarako gonbidapena ele bitan jaso dugu.
- Filmen botoa emateko esku orrian azalpenak hiru eletan daude. Hala ere, aipatu beharra dugu orriaren izenburua gazteleraz dela oraindik: monstruómetro.
- Erakusketak iragartzen dituzten postalak ele bitan daude, Fnac-ek kaleratutako postala ezik (Land of the free. Fantasías de Steve Schofield. Siempre tienes una exposición en las Galerías Fotográficas Fnac).
- Nekrogune ekimenaren inguruan ikusi ditugun kartelak bi eletan izan dira.
- Komiki Jardunaldien programazioa azaltzen duen triptikoa ele bitan dago, bata bestearen itzulpena da.

4.6. WEB gunea

Aurtengo web gunean, iaz bezala, lehenik hizkuntza aukeratzeko pantaila agertzen da, sartu (euskaraz), entrar (gasteleraz) eta enter (ingelesez), aipatutako ordenan. Informazio guztia hiru hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du eta aurtengo, aurreko urteetan ez bezala, film fitxa tekniko guztiak euskaraz irakur daitezke. Bestetik, bi hutsune topatu ditugu, bata harremanetarako helbidearen datuak gazteleraz


daude, eta bestea, web gunearen behealdean San Sebastian Donostia 2016 logotipoan klikatzerakoan beraien web gunera bideratzen zaitu gaztelerazko bertsiora.

Nekrogune ekimen berriak ere web gunea du eta bakoitzaren ordenagailuaren arabera webgunea zabaltzerakoan konfiguratuta duen hizkuntzan irakur daiteke. Ondoren nahi duzun hizkuntza aukeratu dezakezu (es edo eus). Euskarazko bertsioa aukeratu ez gero informazio guztia euskaraz dago.

4.7. Kartelak

Guztira antolakuntzak kaleratutako 6 kartel ikusi ditugu Zinema Astean zehar prentsaurrekoetan barne (filmen kartelak kenduta):

- Ofiziala: Zinemaldiaren izenburua hiru eletan eta data ele bitan.
- Babesleena: prentsaurrekoetan ikusi izan dugu eta bertan antolatzaile eta babesleen berri hiru eletan agertzen zen.
- Komiki Jardunaldien kartelak hiru dira: Informazioa ele bitan dute hirurek. Izenburua, bitan euskaraz (Euskadi Fantastikoa VII eta Zinema Heroiak) eta batean ingelesez (Pulp Visions).
- Erakusketen karteiei dagokienez, guk bi kartel ikusi ditugu: Bata, informazioa ele bitan eta izenburua euskaraz (Komiki Jardunaldietan aipatu dugun Zinema Heroiak) eta bestea, Malakias, informazioa ele bitan.
- "Zatoz eta begira" Ziklo berrirako kartela: Nahiz eta leloa hiru hizkuntzetan egon, gaztelerazko izenburua irakur zitekeen nabarmen:



Horrez gain, Zinema Astearen izenburua lehenengo gazteleraz eta ondoren euskaraz irakur daiteke (XXII. Semana de Cine Fantástico y de terror, Fantasiako eta beldurrezko Zinemaren XXII. Astea).

4.8. Prentsarako materiala

Prentsaurrekoetan eta antolakuntzak emandako poltsan eskuratu izan dugun materiala bildu dugu: prentsa txostena, eguneko programazio txostenak, filmei buruzko informazio txostenak, erakusketei buruzko informazio txostenak eta zenbait iragarki besteak beste. Oro har, ele bitan edo hiru eletan zegoen informazioa, nahiz eta batzuetan hutsuneak izan (prentsari emandako "argazkiak" cd-an karpeten izenburu guztiak gazteleraz irakurtzen dira: carteles, cartel semana 2011, Ven y Mira, Largos, otras actividades...)

Bestetik, posta elektroniko bidez jasotako prentsa oharretan, informazioa euskaraz jaso dugu. Antolakuntzako prentsa arduradunarekin zuzenean izan ditugun mezu trukaketetan, aldiz, erantzuna gaztelera hutsean jaso dugu beti.

4.9. Errotulazioa

Zine aretoetako edota erakusketa tokietako eta bulegoetako ateetan ipinitako ohar edo txartelak ele bitan ikusi ditugu.

5. ERAKUSKETA ETA ANTZERKIAK

5.1. Antzerkiak

Aurten, egon den antzerkia hizkuntza gabea izan da.

5.2. Erakusketak

Zinema Astearen inguruan egon diren sei erakusketa behatu ditugu, alde batetik komiki jardunaldien inguruko hiruak eta bestetik, Malakias, Zinema Heroiak eta Land of the free erakusketak.

Komiki Jardunaldien inguruan 3 erakusketa antolatu dira:

- Pulp Visions erakusketan kanpoko panela euskaraz (hizki lodiz) eta ondoren gazteleraz zegoen. Erakusketa gelan jarri zuten panel handian ere, informazioa euskaraz eta gazteleraz idatzita zegoen (ezkerreko aldean euskaraz eta eskuinekoan gazteleraz).
- Euskadi Fantastikoa VII -an bi erakusketa egon dira. Arantza Sestayoren erakusketan panel nagusia eta argazkien oinak bi eletan zeuden, Rober Garayren erakusketan ere argazki oinak bi eletan.

Beste erakusketak:

- Malakias erakusketarako sarreran jarritako kartel nagusia ele bitan zegoen (euskarak lehentasuna izanik: hizki lodiz) baina "Malakias"-

en inguruko azalpen panel handia ingelesez eta gazteleraz zegoen. Esposatzeko argazki oinak lehenengo gazteleraz eta ondoren euskaraz.

- Zinema Heroiak *Fantasiazko bildumak* erakusketan panel nagusia eta super-heroien busto eta errepliken txartel-oinak ele bitan zeuden.
- Land of the free erakusketaren azalpen testuak eta argazkien oinak ele bitan zeuden.

6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK


Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.

Idatzizko materialari dagokionez, elebitasuna mantendu arren badira zuzendu beharreko batzuk. Hala nola, Asteak kaleratzen dituen argitalpenetan elebitasuna lortu beharko litzateke. Bestetik, poztekoa da, web orriari dagokionez, euskarazko bertsioan, filmen fitxa tekniko guztiak euskaraz idatzita daudela ikustea, urte askoan aipatu dugun hutsunea izan baita.

Ahozkoan eta film luzeetan erabilitako hizkuntzari dagokionean iazko kopuruan mantendu dira euskaraz azpidatzita edota bikoiztutako filmak. Aurten sail ofizialekoak 5 izan dira (iaz baino 1 gutxiago), beste 6 Zatoz eta begira zikloan (iaz Aleister Crowley eta fantasiak zinemaren baina 2 gehiago) eta haurrentzako film bakarra euskarazko bertsioan izan da (iaz bi film izan ziren eta biak euskaraz). Film laburrei dagokienez, sail ofizialean lehiaketan parte hartutako film guztiak euskaraz azpidatziak izan dira baina film labur espainiarrei dagokienez ez da euskararen presentziarik izan. B aldean programazioan egon diren 5 pelikuletatik ez da bakarra ere euskaraz izan.

Film luzeetan kuantitatiboki, ez da ia aldaketarik egon. Euskarazko film azpidatzen kopurua, aurten, bat gehiago izan den arren, Sail Ofizialean bat gutxiago izan da azpidatzia. Haurrentzako Zinemaren film bakarra euskaraz izan da eta film laburren lehiaketan parte hartu dutenen %100ek euskarazko azpititulua izan dute, iaz bezala. Film labur espainiarren kasuan, aipatu beharra dugu, aurten iaz bezala, ez dela euskararen presentziarik izan.

Ahozko erabileran, jaso ditugun datuen arabera, asko dago egiteko Zinema Astearen euskararen normalkuntzari begira. Film luzeen kopuruez gain, (orokorrean hartuta euskaraz %32,43a izan da, horietatik, Sail Ofizialekoetan %21,74a), ekitaldi nagusietan, aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan euskararen presentzia oraindik ez baita behar bezain bestekoa. Zinema Astearen aurkezpen prentsaurrekoan, aurreko urteekin alderatuta euskararen presentzia bermatu bada ere, bestelako prentsaurrekoetan gaztelera gailentzen da nabarmen, euskara hasierako agurretara mugatzen baita. Bestetik, Inaugurazio eta klausura ekitaldietan ere, euskara erabili beharko litzateke eta ekitaldi hauetan proiektatzen diren filmetan euskara bermatu beharko litzatekeela uste du BAGERAK. Gainerako interbentzioetan ere euskararen presentzia areagotu beharko litzateke (sari banaketetan, filmen aurkezpenetan, e.a.), gaztelera izaten direlako. Euskara, gehien bat, Victoria Eugenia Antzokian proiektatzen diren filmeetarako eta aurkezpenetarako erabiltzen da.



Erakusketei dagokienez, aurrera pausuak ematen ari direla ikusi dugu, iazkoekin alderatuta. Erakusketetan idatzitakoa oso gutxi izan arren, txarteltxoetan hizkuntza erabili denean, ele bitan izan da; baita paneletan ere. Baina, hala ere, hutsuneak hor daude oraindik. Hutsune nabarmenena Okendo Kultur etxean (Malakias erakusketan). Informazio panela gaztelaraz eta ingelesez zegoen. Horretaz gain, Fnac-ek kaleratu duen erakusketaren inguruko postala gaztelara hutsean dago.

Laburbilduz, idatzizko materialean elebitasuna mantentzen den arren, Fantasiako eta Beldurrezko Zinema Astean, ahozko erabileran hutsuneak handiak direla deritzogu. Hau horrela, Astean zehar euskaraz izango diren film emanaldiak biltzen zituen liburuxka kaleratzea positibotzat jotzen dugun arren, ez dela nahikoa deritzogu eta BAGERA Elkarteak uste du, badela garaia, euskara Zinema Astearen barruan normaltasunez erabiltzeko Antzoki Zaharreko emanaldietan eta ez, Victoria Eugenia antzokiko euskaldunontzako aparteko emanaldietarako. Beste Zinemaldi bat izango bailitzan.

Beraz, BAGERAK ondokoa proposatzen dio Zinema Asteko antolakuntzari: dauden hutsuneak zuzendu ditzala eta Antzoki Zaharrean euskararen presentzia bermatzea Zinema Astean euskararen normalizazioa lortzeko begira. Antolakuntzak badaki, bide horretan BAGERAren laguntza behar izanez gero, beti prest izango gaituela.